



ERKIDEGOKO GIDABAIMENAK BERRITZEA

19/01/2013tik aurrera erkidegoko gidabaimen bakarra dago eta, beraz, berritzea eredu bakarraz eta Espainiako ordenamenduaren epeez egingo da.

1.- IRAUNGITA EDO IRAUNGITZEAR DAUDEN ERKIDEGOKO GIDABAIMENEN TITULARRAK

Europar Batasunaren edozein Estatukidetan edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Hitzarmenaren kideak diren Estatuetan erkidegoko arautegiari jarraituz emandako gidabaimenek baliotasuna mantenduko dute Espainian, haien jatorrizko lekuan eman izan zirenen baldintzetan. Salbuespen bat egongo da: gidatzeko eskatzen den adina Espainiako baimen baliokidea lortzeko eskatzen denaren berbera izango da.

Hala eta guztiz ere, ez dira Espainian gidatzeko baliokideak izango aipatutako Estaturen batek emandako gidabaimenak edozein Estutu horietan edo Espainian mugatuta, etenda edo erretiratuta badaude.

Erkidegoko gidabaimena berritzeak baimenaren titularrak gaitasun psikofisiko probak nahitaez egitea dakar bai eta berritze hori eskatzen den Estaturikidean bizi izatea ere.

2.- ZEHAZTUGABEKO IRAUNALDI-EPEA, EDO 1. TALDERAKO 15 URTE BAINO GEHIAGOKO EPEA ETA 2. TALDERAKO 5 URTE BAINO GEHIAGOKO EPEA DUTEN ERKIDEGOKO GIDABAIMENEN TITULARRAK

Zehaztugabeko iraunaldia edo 15 urte baino gehiagokoa duten erkidegoko gidabaimenen titularrak berritu behar izango dituzte baldin eta Espainian 2013ko urtarrilaren 19tik bi urtetan legezko bizilekua badute. Data honetan 2006/126/CE Zuzentaraua indarrean sartu zen.

Adibidez:

1.- Zehaztugabeko iraunaldia edo 15 urte baino gehiagokoa duen erkidegoko gidabaimenen titularrak, 2013/01/19an edo lehenago lortutako Espainian legezko bizileku duenak, gidabaimena 2015/01/19tik aurrera berritu behar izango du.

2.- Zehaztugabeko iraunaldia edo 15 urte baino gehiagokoa duen erkidegoko gidabaimenen titularrak, 2014/06/06an lortutako Espainian legezko bizileku duenak, gidabaimena 2016/06/06tik aurrera berritu behar izango du.

Prozedura hau gidabaimenari buruzko zuzentarauak betetzen egiten da (2006/126/CE Zuzentaraua eta maiatzaren 8ko 818/2009 EDak onartutako Gidarien Arautegi Orokorra) garraio-politika komuneko ezinbesteko elementu gisa, bide zirkulazioko segurtasuna areagotzeko lagunduz.



Estatukideek Zuzentarauak ezarritako baliotasun-epaia titularra bi urte baino gehiagotan bere lurraldean bizi izan den beste Estatukide batek emandako administrazio-baliotasun mugaturik gabeko baimen bati aplikatzeko gai izan behar dute.

Hori dela-eta, Europar Batasuneko herrialdeek 2013tik 28 estatukideetarako gidabaimen bakarra dute. Baimen hau beharrezkoa da orain direla urtetan zeuden 110 mota baino gehiagoko gidabaimenak bateratzea lortzeko.

Baimen hauek berritzeko, **AURRETIKO HITZORDUA** eskatu behar da www.dgt.es helbidean edo 060 telefonoan.

BEHARREZKO AGIRIAK:

- Trafikoko Buruzagitzetan edo DGTaren Web orrialdean (www.dgt.es) lor daitekeen agiri ofizialean egindako **eskabidea**.
- **Nortasun eta bizilekuaren ziurtagiriak**: indarrean dagoen Nortasun Agiri Nazionala edo AIZ edo Pasaportearen eta bizilekua ziurtatzeko Trafikoko Buruzagitzak eskatzen duen beste edozein froga-bide.
- **Erkidegoko gidabaimena**: jatorrizkoa eta fotokopia.
- **Gaitasun Psikofisikoko txostena**, baimendutako gidariak araketak egiteko zentroak emanda.
- 32 x 26 mm.eko **argazki** egin berria. Erljioa dela-eta ilea estalita daramaten eskatzaileak badaude, beloaz eginiko argazkiak jaso daitezke baina, onartuak izateko, nahitaezko baldintza hau bete behar da: aurpegiaren obalora ilearen sortzetik kokotsera arte guztiz estalgabetua egon behar da, pertsona identifikatzea galarazi edo oztopa ez dezaten.
- **Argazki-taloia**: Trafikoko Buruzagitzetan lor daiteke. Dagokion laukiaren barruan beteta eta sinatuta.
- **TASA IV.3 : 24,10 €**
 - A) 70 urtetik gorakoek ez dute tasarik ordaintzen.
 - B) Arrazoi medikuengatik luzapena xedaturiko epetik beherakoa denean tasen salneurriak ondorengoak izango dira:

4 Urte Arte	19,30€
3 Urte Arte	14,50 €
2 Urte Arte	9,70 €
Urte bat edo gutxiago	4,90 €

Hiru era tasak ordaintzeko: internetez www.dgt.es helbidean, banku-txartelaz Trafikoko Buruzagietan eta kontu-korronteaz edo eskudirutan finantza-erakundeetan (791 inprimakia eskuragarri dago Buruzagietan eta hemen: www.dgt.es)

Erroldatze-helbide eta EJGZko frogagiriaren aurkeztu ordez, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak informazio hori telematikoki ziurtatzeko berariazko baimena eman daiteke.



MINISTERIO
DEL INTERIOR



Horretarako, izapide-eskabideko formularioan dagokion laukitxoa markatu, edo egoitza elektronikoa edo Trafikoko Buruzagitzetan eskuragarri dagoen berariazko baimen-formularioa bete behar duzu.

Informazio onargarria jasotzen ez bada,egin daitekeen konponketak agiriak aurkeztea behar izango du.

(22/06/2018)